

**JONE IMAZ - ELIZATXO IKASTOLAKO ZUZENDARIA**

## “Ikastolara itzultzeko gogo gehien izaten dutenak txikienak dira, lagunak ikusteko gogoa izaten dute”

■ Jone Imaz Elizatxo ikastolako zuzendaria da ■ 349 haur matrikulatu dira aurten Lehen Hezkuntzan eta 105 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ■ D ereduko ikastola da Elizatxo, baina hala ere, euskeraz gain gaztelania eta ingelesa ere lantzen dute txiki-txikitik.

**HASI** da ikasturtea eta bukatu zaizkie oporrak Hernaniko haurrei ere. Poliki-poliki urtean zeharreko martxa hartzen joango dira ikasleak eta baita irakasleak ere. Lan eta lan harrapatu dugu Jone Imaz Elizatxo Ikastolan duen bulegoan. Hantxe hartu gaitu ikastola honetako martxa nolakoa den azaltzeko.

### Gustora itzultzen al dira haurrek ikastolara?


Ikastolara itzultzeko gogo gehien izaten dutenak txikienak dira, lagunak ikusteko gogoa izaten dute. Adinean aurrera hasten dira hain gustora ez etortzen.

### Zein hizkuntza eskaintza duze Elizatxon? Ingelesa gero eta azkarrago hobe?

Elizatxo D ereduko ikastola da beraz euskerazkoa da gure hezkuntza eskaintza. Gaztelania eta ingelesa dira lantzen ditugun beste hizkuntzak. Ingelesarekin lau urte dituztenetik hasten dira, gero eta azkarrago hasi hobe izaten da. Beranduago sartzen saiatzen garena gaztelania da; hirugarren mailan. Etortzen diren haur gehienetan ingurunea gaztelaniaz aritzen da, eta ez dute arazorik izaten gero gaztelaniaz hasteko. Saitzen gara gaztelaniaz ikasketetan sartu aurretik euskera mendera dezaten.

### Zein hizkuntza da jolastokian entzuten dena?

Nik uste batez ere euskera dela entzuten dena. Bost eta seigarren mailan hasten dira apur bat gaztelaniara pasatzen; onartu behar dugun errealita-



**Jone Imaz da Elizatxo ikastolako zuzendaria.**

tea da hori. Kalera ateratzen hasten dira, beste harreman batzuk egiten...

Doberarekin plan bat daukagu eta hamabostean behin etortzen dira. Lehiaketak eta horrelakoak ere egiten ditugu euskera bultzatzeko.

### Ordenadorea indarra hartzen ari da ia esparru guztietan. Zein presentzia du Elizatxo Ikastolan?

Ikasgai guztieta erabiltzen da ordenadorea txiki-txikitik;

ariketak izaten dira ordenadorez egiteko, soinketan izan ezik. Saio bereziak ere izaten dira ordenadore gelan programa ezberdinak erabiltzen ikasdezen.

### Eskaintzen duzue eskolaz kanpoko ekintzarik?

Kirol ezberdinetan aritzen dira. Hori herri mailan. Dantza ikastaroak eta seigarren mailako mekanografia klaseak ere ematen dizkiete guraso batzuk.

### Gurasoek zein partehartze dute ikastolan?

Alde batetik Guraso Elkarteak dago. Bestalde irakasle eta tutoreekin duten harremana dago; bileretan eta horrelakoetan. Gehien kostatzen dena kontseilu eta horrelako gauza ofizialetan parte har dezaten lortzea da.

### Esaten da zenbait ikasgai garrantzia galtzen ari direla; ikasgai artistikoak adibidez. Ze iritzi duzu horretaz?

Bai, egia da. Delegaritzatik bildaltzen duten programa mugatua da alde horretatik; astean ordu eta erdi baizik ez zaio arteari eskaintzen; bestalde soinketa klaseak daude. Arteari eskaintzen zaion denbora horretan musika ere sartzen da gainera. Guk musika aparte kontenplatzen dugu eta aparteko ordutegia eskaintzen diogu. Bestalde aukeran jartzen da erlijio klaseak izan nahi dituzten edo ez, baina gurasoek eskatzen ez dituztenez ordu horiek harremanak eta bizikidezta bezalako gaiak lantzeko erabiltzen ditugu.

### Irteera asko egiten al duzue?

Lehen Hezkuntzan kurtsoan behin gutxienez bi edo hiru eguneko irteerak egiten dira.

Txuri Urdinera, zaldian ibiltzera eta horrelakoetara ere ateratzen gara. Zinera ere joaten gara. Txikienekin ingurunea ezagutu dezaten irteeratxoak egiten dira. Idazleak ere ekartzen ditugu. Gazteek gero eta gutxiago irakurtzen dutela egia da baina idazlea etortzen denean gustora irakurtzen dute bere libururen bat.

### Zer gertatzen da haur batek beste haurren martxa jarraitu ezin badu?

Geletako lanak talde txikitana egiten ditugu bakoitzaren jarraipena egiteko. Ariketak ere maila ezberdinan planteatzen dira bakoitzak ahal duenaren neurrian lan egin dezan. Laguntza behar duenari klase barruan ematen saiatzen gara, eta klase barruan aparte jarri gabe, umea gaizki sentitu ez dadin.

Argeliako mutiko bat izan genuen eta horri laguntza trinkoagoa eman behar izan zitzzion, batez ere, hizkuntzaren kontuagatik, ahozko hizkuntza lantzeko batik bat. Gaztelaniaz ere ez zekien eta hori positiboa izan zen.

### Kalitate Legea geratuta da go epta hala?

Bai, Kalitate Legea orain geldituta dago. Zenbait aldaketa martxan jarri ziren baina orain ez dira berriak sartuko, ez dakigu zer egingo duten; orain delegaritzatik paperak eskatu eta eskatu ari dira.

### Zein dira zure ustez oraintxe zuena bezalako ikastolentzat erronka nagusiak?

Erronka nagusia dudarik gabe etorkinen integrazioa izango da. Gurean momentuz ez dugu sumatu, guk integrazio kontuak ijitoekin landu ditugu, baina irakurri nituen Hernaniko estatistikak eta badirudi gora dijala etorkinen kopurua. Integrazioa hala ere ez da ikastola mailan bakarrik lortu behar; familiar... denok aurre egin beharko diogun erronka bat da. □

**AIALAR TABERNA**  
GIRO EDERRA  
ETOR ZAITEZ

**ZAPA KALEA 8 - 943 33 15 06**

**HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA ZORIONAK!**  
HABErn 1. edo 2. maila, EGA agiria edo hizkuntz eskakizunen bat atera duzuen guztioi  
04-05 IKASTURTERAKO Matrikulaldia ZABALIK  
irailaren 6tik 24ra  
Diru-laguntzak ere badauzkagu.  
Galde ezazu euskaltegian (Karobieta 63an, anbulatorio zaharrean!)  
943 331896  
e-mail: [eskualde@hernani.net](mailto:eskualde@hernani.net)  
Ordutegia: 9:00-13:00 / 16:00-19:00

**HERNANIKO UDALA**

**SANTA BARBARA**  
PEUGEOT 943 551139 / 943 551979  
Taldeak: Larramendi 15 - Exp: Aranzazu 15

✓ PEUGEOT 206 diesela	Aire egokitua - KM 0 -	11.700 €
✓ PEUGEOT Partner diesela	SS-BG	6.000 €
✓ CITROEN Berlingo diesela	Aire egokitua	8.300 €
✓ OPEL Corsa gasolina	SS-BG	3.600 €
✓ SAAB Coupe 900 S	95 urtekaoa	4.800 €
✓ PEUGEOT 406 turbo diesela	SS-AY	3.900 €
✓ FIAT UNO diesela	GI-AY	2.885 €
✓ OPEL Corsa gasolina	SS-AK	1.503 €
✓ PEUGEOT 405	SS-AF	1.200 €

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoz aldatzent ditugu  
LARUNBAT GOIZETANIREKITA DAGO

## Sagar Eguna eta Trikitixa txapelketa gaur

HAMABI sagardogilek egindako sagardoa probatzeko aukera izango da gaur, Hernanin, urtero Sagarrunaren barruan. Tolarea Sagardoaren Kofradiak antolatzen du urtero egun hau eta sagardoaren inguruko erakusketa haundi bat izango du jendeak ikusgai,

goizeko 10:30ak inguruan hasi eta 14:00ak bitartean.

Sagardoa egiteko zein tresna erabiltzen diren erakutsiko dute eta sagardoa nola egiten den ere bai. Tolaretik zuzean muztioa edateko aukera ere izango da. Festa Gudarien plazan izango da. □

**Gazteen Trikitixa txapelketa**  
Gaur bertan, eta Gudarien plazan baita ere, Gazte mailako VI Trikitixa txapelketa izango da, Kriskitiña dantza taldeak antolatuta. Guztira 6 bikote neurruko dira eta horietatik 2 hernaniarrak dira. Txapelketa 12:00etan hasiko da. □

## Sukaldaritzeta eta irudiak tratatzeko ikastaroak Kutxa ikasgelak lagunduta

■ 'Pasta egiteko modua' ikastaroa da bat eta Txantxangorrin egingo da ■ Bestea, irudiak Photoshop bidez tratatzeko ikastaroa K. Labakan (EPOn) izango da.

KUTXA ikasgelak lagunduta hainbat ikastaro izango dira urria eta azarotik aurrera. Ikastaro batean pasta egiteko modua ikasiko da eta hau erderaz izango da. Bestea, Photoshop bidez irudiaren tratamenduari buruzkoa, euskeraz izango da eta Karmelo Labakan 7garren zenbakian (EPOn) egingo da.

### Pasta nola prestatu

Ikastaroetako batean pasta nola prestatu erakutsiko da. Ikastaro hau erderaz izango da eta azaroaren 2tik 30era izango dira klaseak, Txantxangorri elkartean. Guztira 12 ordu izango dira emango direnak, eta ordu horietan hainbat pasta mota prestatzen erakutsiko dute: rabioliak, tagliateliak, lasaña, lazaña berdea, espagetiak, makarroiak, torteliniak eta pizza. Pasta mota horiek egiteaz gain, laguntzeko saltsa mota ugari egiten ere erakutsiko dute.

Ikastaroaren ordutegia izango da, asteartean arratsaldeko 16:00etik 20:00etara. Bi talde ezberdin antolatu dira ikastaro honetarako: talde batean gehienez 29 urte dituzten ikasleak bilduko dira eta hauek 26 euro ordainduko dute ikastaroarenagatik. Beste taldean ez da adin toperik izango eta hor izena eman nahi dutenek 36 euro ordainduno beharko dituzte. Izena emateko azaroaren 30a arte dago denbora.

### Irudiak landu

Beste ikastaroan ikasiko da Photoshop programaren bidez irudiak tratatzten. Ikastaro hau Karmelo Labakan egingo da, EPOn. Ikastaroa urriaren 14tik abenduaren 12ra arte izango da eta guztira 30 ordu emango



Torteliniak eta rabioliak egiten ikasiko da ikastaro batean.

### MATRIKULA

Ikastaroetan  
matrikula egiteko  
[www.begira.com](http://www.begira.com)  
helbidean edo 943-  
440863 telefonoan.

dira. Ikastaro honetan ikasiko da: irudiaren tratamendurako ezaugarri bereziak, irudiak tratatzeko tresnak eta aplikazioak, Photoshop programa, digitalizazio prozesua, edizioko teknikak, trazatuak, teknika berezikak eta geruzekin nola lan egin.

Ikastaroaren ordutegia da: astearte eta ostiraletan arratsaldeko 18:00etik 20:00eta-

ra. Ikastaro honetan ere bi talde de antolatu dituzte. Talde batean 29 urte baino gutxiago dituztenak ariko dira eta hauak matrikula egiteagatik 88 euro ordainduko dituzte. Beste taldean matrikulatzeko adin mugarrak ez dago. Hor 120 euro ordainduno beharko dira. Izena emateko abenduaren 2ra arte dago epea.

### Matrikula irailean zehar

Ikastaro horietan izena eman nahi duenak interneteko helbide honetara jo beharko du: [www.begira.com](http://www.begira.com). Behin orri horretan sartuta *Kutxa Ikasgelak 2004* jartzen duen horretara jo beharko du. Bestela 943-440863 telefono zenbakira deitura ere egin daiteke. □

## HITZ BITAN

### ✓ FUTBOLA - ERREJONALA

**Hernanik 3-0 irabazi Zarautzi.** Hernanik oso itxura ona emanda irabazi du ligako lehendabiziko partidua. Aurrean Zarautz taldea zeukan hernaniarrek eta 3-0 irabazi zieten. Lehenengo gola bigarren zatiaren hasieran sartu zuen Hernanik penaltiz. Urbanok sartu zuen gola. Bigarrena eta hirugarrena ia segidan etorri ziren eta Hernanik egindako azken fitxajeak sartu zituen gainera, Iñigo Vila lasartearrak.

### ✓ UDAL MUSIKA ESKOLA

**Bihar hasiko da kurtso berria.** Bihar hasiko da Udal Musika Eskolako kurtso berria. Guztira 430 bat ikaslek eman dute izena aurtengo kurtsorako. Musika Eskolan instrumentu asko ikasten dira: guitarra, biolontxelo, violina, klarinetea, tronpeta, saxofonia, perkusioa, txalaparta, dultzaina, alboka, trikitixa, akordeoia eta pianoa.

### ✓ EMAKUME ZENTROA

**Ikastaroetan izena emateko aukera gaur eta bihar.** Emakume Zentroak urtero antolatzen dituen ikastaroetan apuntatu nahi duenak gaur eta bihar izango du aukera. Ikastaroak honako hauak dira: gimnasia, pintura eta monpos, pintura eta kristala, josteko lanak eta bolilloak eta tridimensionalak. Izena eman nahi duenak gaur edo bihar egin behar du, 16:30etatik 18:30etara, Elkano kalea 17an.

### ✓ ZIKUÑAGAKO AMA - ZIKLOTURISTAK

**Bizikleta irteera gaur Bera herrira.** Hernaniko Zikuñagako Ama zikloturista taldeak irteera antolatu du Bera herrira. Betiko orduan aterako dira eta 70 kilometro inguruko buelta egingo dute.

### ✓ BITERI - IKASTAROAK

**Biteriko ikastaroetan badago aukera oraindik.** Biteriko ikastaroetan badago aukera oraindik ere plazaren bat eskuratzeko. Aurreko astean matrikulak egin ziren eta horregatik zerrendan zai zegoen jendeak oraindik ere badu aukera hainbat ikastarotan izena emateko. Bestetik, oraindik ere ikastaro batzuk ez dira osatu eta gainera beste ikastaro batzuetan talde berriak sortu dira. Talde berri horiek dira: Tai-Chi, egur taila eta dantza garaikidea (hasiera).

Izena eman nahi dutenek aukera dute irailaren biharki hasi eta asteazkenera arte. Ordutegia da: goizeko 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Hilaren 24tik aurrera ikastaroren batean plazarik geratzen bada iritsi ahala lortu dituzten plazak Biterira joaten direnek. □

### ZERBITZUAK

#### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulutorioa: 943 006666
- Jokalarri anonoimak: 943 331103
- Alkoholiko anonoim: 943 331103

#### FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes Florida auzoa  
☎ 943 557738
- Gaez: De Miguel Lasarte. Nagusia 32  
☎ 943 361556

### IRAGARKI MERKEAK

Etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko pertsona behar da. Goiztan egingo luke lana. Deitu: **689 144 881**

Pisua salgai Zikuñagan. 70 m2 eta kampora begira; erreformak egin berri diru eta bizitzea sartzeko moduan dago. Interesatuek deitu: **653 73 79 90**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertsbra, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

AUXILIAR Administratiboa. Eusko Jaurlaritza, Udaletxeak: Zarautz (6 plaza), Hernani, Usurbil, Beasain, Bergara. Informa zaitez: **943 43 41 27**

TXOFERRAK. Plaza fijoak Eusko Jaurlaritza, Udaletxe, Foru Aldundietan. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

SUKALDE lagunzaileak, garbitzaileak, serbitzariak. Plaza fijoak: Udaletxe, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi, eskolatan.. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

HAURTZANDEGI publikoak, behar dituzte: irakasleak, edukatzaileak, zaintzaileak, asistentak. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

LIBURUTEGIAK, rezeptzionistak. Plaza fijoak: Udaletxe, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundietan. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**


LABORATORIOKO AUX. Teknikoa. Depuradoratako ur kontrolatzailea, analisi klinikoak. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

BASOZAINA, 17 plaza, Administrazio Publiko Saila. Informa Zaitez: **943 43 41 27**

KONTSERJEAK, lan postuak, Udaletxe, Eusko Jaurlaritza, Eraikuntza publikoak. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

SUHILTZAILE. Postu libreak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko parketan. Kondizio ekonomiko ezin hobeak. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

REZEPZIONISTA-Telefonista. Plaza libreak Eusko Jaurlaritza eta Udaletxeetan. Laster hasteko. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**



### HERNANI HIZKUNTZAK

(Gure Ingelesetxea)

ZORIONAK guztiotzat Advanced eta First  
azterketak gainditzeagatik.

DATORREN IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08 - KALE NAGUSIA 41, 1



Allianz

ASEGURUA  
Agustin Ezponda  
AGENTZIA

Telf.: 943 557 326  
656 735 109